

Sutondoaren Epelean Ramón Barrenetxea odol-emailea
Zer berri Euskal Tonbola herriko tabernetan

pitpilean

SORALUZKO
HAMABOSTEKARIA
119. alea, 2005eko
urriaren 14an

60 urtean mendizaletasuna bultzatzen





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



telefonoa: 943 75 0030



MIKEL SANTIAGO

“Biltzen, baketzen, bozten”

Iparraldea idealizaturik izan ohi dugu Hegoaldekoak, eta irudi hori buruan genuela ailegatu ginen Arrangoitzera joan den urriaren 9an, Debagoieneko beste dantza talde batzuekin batera, zeru oskarbia lagun genuelarik. Mutxiko Eguna ospatzen zuten bertan, aspaldiko urteetan egiten duten moduan.

Traste guztiak hartu eta dantzak izango ziren lekurantz abiatu ginen. Parean, aurreko eta atzeko hormak zabalik zeuzkan eraikin elegante bat aurkitu genuen, “Naturaren Antzokia”, eta hantxe ari ziren bazkaritarako mahaiak prestatzen. XIX. mendeko giroa oroitarazten zuten lanpara handi batzuk zeuzkan sapaian, eta antzokiko eserlekuen atzean Iparraldeko estilorik ohikoenean, inguruko paisaiaren koadro handi bat ikus zitekeen. Sarrerako atearen gainean berriz, hiru hitz soil zeuden idatzita: biltzen, baketzen, bozten.

Elizaren ondoan ekin zitzaion Mutxiko dantza ezberdinak egiteari, Azkaindarrak, Hegi... Jende multzo handi bat jarri zen iladan, borobilean, mutil eta neska, zahar eta gazte, Iparraldeko zein Hegoaldeko, guztiok bat eginik eta nolabaiteko herri sentimendu batek bultzatuta, dantzan ez dakigunok ere harrapatu gintuen Mutxikoak.

“Ebats, erdizka, pika...” eta bestelakoak urrats emaileak esaten zituen bitartean, herrietan guztiok batera adierazpen kulturalen bitartez parte hartzeko daukagun beharraz pentsatzen hasi nintzen. Tristeza da ikustea, gero eta urriagoa dela herrietan partehartze hori, elkarbizitza areagotzeko, elkarren arteko bizipenekin aberasteko, eta azken finean, kultur adierazpenen bitartez ere, gure herria, Plaentxia, eraikitzeko. Guztiok batera Mutxikoa dantzan egiten ikustea, herritarren parte hartzeak beharko lukeenaren sinboloa bihurtu zitzaidan.

Bazkaria aldarde onean bukatu ondoren, “Naturaren Antzokian” burutu zen arratsaldeko dantza saioa. Eraikin bikaina zen era guztietako ekitaldiak bertan egin ahal izateko. Plaentxian ez daukagu horrelakorik, ezta apalagorik ere. Hitzaldi xume bat egiteko elizara jo beharra daukagu, eta gaur egun ez dut uste horrela beharko lukeenik.

Kultur etxe baten eraikuntza, beraz, lehentasun bihurtu behar dugu. Herria bestelako baliabidez hornitzea ondo dago, eta zuzen iruditzen zait. Baina kulturari zor zaion begirunea, behingoz, duintasunez gauzatu beharko litzateke. Arrangoitzen ikusi genuen moduan, gure artean “biltzen, baketzen, bozten” jarraitu ahal izateko leku egoki bat behar dugu Plaentxian, eta nahi izanez gero, badira aukerak.

Ondo etorri irakurle. Stop. “Sociedad Deportiva” ezagutzen?. Stop. edo Kirol Bazkuna? . Stop. bai ezta?. Stop. herriko elkarterik zaharrenetako bat da. Stop. emankorrenetako bat. Stop. ez genkixan gaur egun zertan zan. Stop. eta jakin dogu hamaika kontu interesgarri. Stop. S.D.P./ S.K.B. gaur herrixan daren kirol talde gehixenen sorgune izan zan. Stop. gerra osteko urterik gogorrenetan sortu zan. Stop. borondate hutsezko lanian jardun dau beti. Stop. hainbat kirol talde hazi dittu urtiotan bere babesian baina mendizaletasuna izan da beti bere kuttuna. Stop. bere bihotza. Stop. eta horretantxe da gaur egun. Stop. bejondeixola. Stop. baina errelebo faltan da. Stop. gazte faltan. Stop. eta zuek, mendizale gaztiok, ze mendi puntatan galdu zarete?. Stop. ez daukazue maitte dozuen kirola zaintzen jarraitzeko asmorik?. Stop. ointxe da testigua hartzeko momentua!. Stop. mendizaleak aurrera!. Stop. atrebituago dabiz Afrikatik honuntz etorri nahi daberen pertsonak. Stop. biharko!. Stop. imaginatu momentu batez gosiak hil biharrez hemendik alde egin biharko bazendu. Stop. imaginatu benetan. Stop. baina guk 0,7rik be ez dogu bialtzen. Stop. ogi apurrik be ez!. Stop. harritzekua dana da zela oindio ez diran arnaz altxatu arnaz belaunikatu eta humilatzen ditugun gizon emakumiok!. Stop. harritzekua benetan. Stop. zer pentsatu emoten dau. Stop. eta ez, ez dago soluziño milagroso-rik. Stop. daukaguna banatzia da soluziño bakarra. Stop. eta hasi gaittezen beranduegi izan aurretik. Stop. odola emanen. Stop. Pilarikan lan eginez. Stop. danok batera Oinknez!. Stop. pentsatu!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarteak
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.
Telefonia 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan

Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Azala: Silvio Vaz Caro
Diseinua eta Maketazioa: Egoitz Unamuno
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Erreportaia



Duela 60 urte, 1945ean, Sorluzeko lagun talde batek herriko kirol jardunari forma emateko beharra ikusi zuen. Orduan sortu zuten Sociedad Deportiva Placencia futbola, pelota, txirindularitza, atletismoa eta mendizaletasuna bere baitan hartuko zituen erakundea.

Zorion agurrak



Ariane Criado Martin

Irailaren 1ian
Zorionak wapsisima!!
Gurasuen partetik.



Urko Alberdi Laskurain

Urriaren 19xan urtebete
Zorionak gure polittinari!!
Zure lenengo urtebetzian, etxekuen partetik.



Irati Perez

Urriaren 2xan
Zorionak potxola!!
Muxutxu asko!
Etxekuen partetik.



Koldo Heriz

Urriaren 17xan 25 urte
Zorionak!
Normala partxisian irabaztia.
Aspaldi hasi zinan entrenatzen, eh!
Jarraitu gerria emoten!
Patxo haundi bat, potxolo!
Etxeko danen, lagunen eta
Soraluzeko Euskalgintzaren partetik.



Ugaitz Catalan

Urriaren 17an 23 urte
Zorionak!!
Besarkada bat!
Etxekuen eta lagunen partetik.

gutuna

EITBren gatzak eta piperrak

EITBk bere parrila berria Bilbon aurkeztu berri du, "baliabide eskasez baina irudimenaz, kalitatezko programazio berria". Eta kontraesana txintxik esan gabe irentsi dugu: non, eta baliabideak alferrik gastatzen ari diren Bilboko egoitzan bertan. Behar ez den egoitza berria, kudeaketa sistema neoliberalen ezarpenak eta azpikontratek irentsi behar duten ustezko zero defizita. Programaziora itzuliz, ETB1ean entrenimendua haur eta gazteentzako ematen jarraituko da batik bat, eta eskola utzi duena ia jubilatuta arte aukerarik gabe gelditzen da. ETB2an berriz apartheidaren informatiboak eta gehiago. Beti ere, audientziak kontutuan edukita: baldintza hau betetzen ez duten programek ordutegi bitxietan jarraituko dute. Adibide gehiegi eman daitezke ETB1etik gutxiesten adierazteko. Askotan programarik freskoe-na meza santua dela esan daiteke. Promozio iragarkia ikusita, etorkinak integratzearen alde egonik, ez gaude oso ziur piper eta gatzaren helburua hori izango den, edota Euskal Kultura eta lurraldetasunarekin zerikusirik ez duten programa zozoen audientziak igotzea, bertako ikus-entzule potentziala ETB1era bideratu beharrean. Herri desegituraketan ere Bilboko egoitza berriak ere badu bere sinbologia. Plan Estrategikoan onartu zuten

Tokiko euskal telebistekin harremanak sendotu beharrean pausu bat aurrera eta bi atzera egin da. Radio Euskadi eta ETB2ren aurrean Euskadi Irratia eta ETB1 agertzen dira. Horrela jarraituz, erderazko EITB Bilbon eta euskarazkoa Miramonen jartzen ez ote dute amaituko? Etxe barrura begira, LAB prekaritate neurriak Lan Ikuskaritzara bideratzen ari da, bekadun eta langile autonomo faltuen erabilera kasu. Aldi berean, langileak euskalduntzeko Plan Estrategikoaren neurriak bertan behara errez gelditu ziren (KONTSEILUAREN kanpainari zortetik onena opa diogu), eta etxeko informazio politika ere oso xebea da. Kasu bat aipatzearen, Langile Batzordeak urtebetez legez zor zaion hainbat informazio eskatu izan dio zuzendaritzari, eta erantzun ezaren aurrean LABek Lan Ikuskaritzan salaketa jarri zuen. Zilarrezko Q jaso duen Munduko lehen komunikazio taldea informazioan liderra. EITB bera eta ia bezero bakarra den Ikus-entzunezkoen sektorea antolatze-ko ez legoke gaizki berezko Kontseilu bat behingoz eratzea. Aukerarik egongo al da EITBren hasierako garaietan gizartean eta bereziki bertako langileon artean egon zen harro egoteko itxaropena berpizteko?

Jon Otegi Irastorza
EITBko LABeko ordezkaria



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Lana

Gipuzkoako lurralde historikoan ordezkapenak egiteko zerrendak

Eusko Jaurlaritza. LH II edo baliokidea. Gipuzkoako Lurralde Historikoko ikas-tetxeetan italierako espezialitateko ordezkapenak egiteko izangaien zerrendak irekitzea. Epea: 2005-10-14. Telefonoa: 943 022949

Zuzendari bat Barren Aldizkarirako

Elgoibarko Izarra. Eskatzen da; Kazetaritzako lizentziatua izatea, Euskara-maila ona, Elgoibartarra edo ingurukoa izatea. Epea: 2005-10-21. Telefonoa: 943 741626 (Imanol)

Ikastaroa

Geriatriko laguntzaile ikastaroa

Emakunde. 2500 ordu. 2005eko azaroren 25ik 30era, 16:00etatik 20:00etara. Tokia: Txara I, Donostian. Epea: 2005eko urriaren 14tik 28ra. Telefonoa: 943 454014.

Azterkosta programa

2004ko kanpainan EAEko kostaldeko 32 gunek aztertu ziren, guztira 160 kilometro inguru. Azterkosta urterotero bolondres kopuru handiak parte hartzen du. Urriaren erdialdean, 17 eta 28 bitartean, bilerak egingo dira izena emandako taldeekin. Izena ematea 902 160 138 telefonoan.

Pisua salgai Soraluzen

Ezoziko Bidian. 649052585

hildakoak

FRANCISCA GURIDI
MARIA EGUREN
MARIA UCIN

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22. behean. telf: 943751780

Zer irizten dotsazu?

Azken asteotan emigrazioaren inguruko berriak komunikabide nagusienetako titularretan azaldu dira. Gose eta gerratik ihesi datozen afrikarrak indarrez gelditu nahi izan dituzte baina horrek ez du inondik ere arazoa konpondu.

Ze eritzi daukazu emigrazioaren eta mugan gertatzen danaren inguruan?



Mario Iglesias
47 urte kontrol numerikua Ondo iruditzen jata. Ni be mobidu naiz etorkizun hobe baten bila baina kontrolau egin bihar da ze ezingo litzake jente guztia etorri hona. Melillan gertatzen ari dana ez da modua arazua konpontzeko.



Antonia Fernández
63 urte etxeandria Ondo iruditzen jata imigraziñua baina papel eta guzti. Gure garaixan be hola juaten ginan kanpora. Melillan animalixen moduan tratatzen dihardue jentia eta ez dago eskubiderik horretarako. Ez dakit zela pasau leikien han gertatzen ari dana.



Margarita Maiztegi
77 urte jubilatua Bai, hain gaizki badare ondo dago. Erregulatuta egon bihar litzake imigraziñua. Melillakua oso tristia da eta ez dago eskubiderik.



Said Ssihid
29 urte iturgina Nere ustez kontrol batekin egin bihar da. Melillan gertatzen ari dana gaizki iruditzen jata. Jende askok etorri nahi dau eta ez dago danendako lanik. Ni papelekin etorri nintzan, lan batekin. Jentia han pentsatzen dau hemen lana danendako daguala eta hori ez da hola.



Andoni Osoro
27 urte irakaslia Ondo irizten jata imigraziñua. Jentia hemendik urten bihar izan zeban eta oin hona etortzia ondo pentsatzen jata. Melillan pasatzen ari dana ez jata ondo iruditzen. Arazua beste modu batera konpontzia lortu bihar litzake, ez indarrez.



Eloi Bolunburu
47 urte tornerua Euren herriealdietan gaizki badare laga egin bihar jako etortzen jentia baina kontrolauta. Hori bai, Melillan gertatzen ari dana Espainia eta Marruekos artian konpondu bihar dabe baina ez hola..

ARMENDIA
JATETXEA



Ezoi Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

JABIER ALBERDI



HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Haur eta gurasoek komun berriak eskatu dituzte



Urriaren 5ean, Plaentxi Herri Eskolako haur, hauen guraso eta irakasleak (200 bat guztira) Plaza Barrian elkartu ziren “Eskola berria bai, komunak ere bai” pankartaren atzean, ikastetxeko 2. pixuko komunaren egoera salatzen. Arazoak ikastetxea berritu eta eskolak hasi zirenetik dirau, orduan ohartu baitziren zentroko arduradunak bigarren pixuko

komunek ez zutela behar bezala funtzionatzen. Ur-etorria ez da nahikoa eta bombak ez ditu eraman eraman beharreko guztiak. Etzoz Larrañaga zentroko zuzendariak Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren “utzikeria” salatu zuen “ez baitute orain arte ezertxo ere egin” eta beste behin ere komunak konpontzea eskatu zuen.

Euskarazko prentsak laguntza gehiago eskatu dio Jaurlaritzari

Astlehenean Donostian egindako agerraldi batean, euskarazko hainbat hedabidek (Berria, Argia, Ipurbeltz, Elhuyar, Jakin, herrietako 26 hedabide -Pil-pilean tartean- besteak beste) azken bost urteotan laguntza ez dela handitu eta dirua berandu iristen zaiela salatu zuten. Miloi bat euro gehiago eta dirulaguntzak garaiz ordaintzeko eskaera egin zuten hedabideotako ordezkariak, sektorearen egoera larria azalduz.



Euskal tonbola herriko tabernetan



Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak euskal tonbola jarri du eskualdeko 150 taberna baino gehiagotan, euskararen normalizazioa joko baten bidez gizarteratze-ko asmoz. Txartelak euro baten truke eskura daitezke; Gaztelupe, Gila, Arrano, Mendata, Ufala, Edurtza eta Txokoan. Sariak ugari dira, 5 txartelatik 1 sariduna baita: Mediterraneo itsasoan kruzeroa, asteburuak landetxeetan, talasoterapia zirkuitoak, afariak, sakeleko telefonoak...

PPk alkateak EHNaren tramitazioa baimentzen duela salatu du

Soraluzeko PPko zinegotzi Javier Nuñezek Oscar Gabilondo Soraluzeko alkateak, EHNA tramitatzeko uzten duela salatu du prentsaurreko batean. PPk dioenez, Askatasun Haizeak plataformari udal egoitzetan “euskal NANA” tramitatzen uztea salagarria da, tramitazio hori “sistemaren aurkakoa eta alegala” omen delako. Hala ere legearen aurkakoa ez dela aitortu du. Nuñezen ustez baina, EHNA “hiritartasun kontzeptuaren kontrakoa ez ezik, demokraziaren kontrakoa ere bada”. SAH-k Udaletxeko zinegotzi gelan egiten ditu EHNA eskuratzeko tramitazioak, hileko azken ostiraletan 19etatik 20etara.

Mendata taberna

Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater konbinatuak Enkarguak etxerako (bazkariak eta afariak)

Kalebarren, 5
 Tfnoa 943 75 13 87

SAN ANDRES
 Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
 Tfnoa 943 75 16 46

Debarroa egitasmoa aurkeztu du Debemenek landa ingurunea gizarteratzeko

Eguenean Debemenek, Debagoienan eta Debabarrenean landa ingurunea (baserri mundua) gizarteratzeko Debarroa egitasmoa aurkeztu zuen Udaletxean. Hezkuntza, enpresa, administrazioa, hirugarren adina eta gizarte osoari zuzendutako ekimen sorta biltzen du egitasmoak: material didaktikoa, sentsibilizazio kanpainak, bisitaldiak, hitzaldiak... Helburua, jendea gure gizartean landa inguruneak duen garrantziak ohartaraztea da. Datozen urteetan baserriak mantendu nahi badira, "folklore hutsa bihurtzeko arriskuan" diren azokak baino zerbait gehiago egin beharko dela azpimarratu zuten. Udalak egitasmoa aztertzeko konpromisua hartu du. Aurkezpenaren ostean, azaroaren 12an egingo den X. Gaztañerre Azokaren inguruan berba egin zuten.



Emakumeei zuzendutako oinarrizko informatika

Debegesak eta Soraluzeko Udalak emakumeei zuzendutako alfabetatze digital ikastaroa antolatu dute datozen asteetarako, Izartu I programaren baitan. Ikastaroa 3 bloketan zatitu dute, eta 65 orduko iraupena izango du. Eskolak kiroldegiko erakusketa gelaren ondoan emango dira hilaren 17tik aurrera. Informazio gehiago Udaleko bulegoetan edo 943753043 telefonoan.

Kzgunean langileendako kurtso bereziak

Soraluzeko Kzgunek, bere aldetik, langileendako kurtso bereziak antolatu ditu urrirako. Ordenagailua birus informatikoetatik babesten eta negozioaren segurtasun in-

formatikoa eta segurtasun kopiak egiten irakatsiko da, besteak beste. Honekin batera, Kzgunek Kurtso arruntak emango ditu urrian zehar. Informazio gehiago Kzgunean eskura daiteke, asteartean 16:00etatik 20:00etara, edo 902 25 25 95 telefono zenbakian.



Santa Ana kalea zentzu bakarrekoa

Urrriaren 14tik aurrera Olako zubia eta Udaletxea bitartean zentzu bakarra izango du trafikoak, Olatik Santa Anara eta Udaletxera doana hain zuzen ere. Hortaz, aurrerantzean galerazita egongo da Udaletxetik Santa Ana kalean sartzea.

Esperientziaren Eskola

Debegesak antolatuta, joan zen astean inauguratu zen Debabarreneko Esperientziaren Eskola. 50 urtetik gorakoentzako ikastaroak eskainiko dira. Aurtengoan 25 lagunek eman dute izena. Interesatuak 943820110 telefonora dei dezakete.

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA



Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

Lakuesta
Optika 

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak
Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Mendi taldeak 60 urte beteko ditu

Duela 60 urte, 1945ean, Soroluzeko lagun talde batek herriko kirol jardunari forma emateko beharra ikusi zuen. Orduan sortu zuten Sociedad Deportiva Placencia futbola, pelota, txirrindularitza, atletismoa eta mendizaletasuna bere baitan hartuko zituen erakundea. Urte luzeetan indartsu eta osasuntsu izan zen Kirol Bazkuna, herri mailako kirol ekintzen antolaketan buru bakarra.

Bakoitza bere bidetik

1976. urtean Soroluzeko Futbol taldea sortu zen, Sociedad Deportivako Estatu-tuekin, baina bere buruaren jabe. Jose Cruz Aranzabalek (presidente 1980tik 98ra) adierazi digunez "beste kirolak Sociedad Deportivan menpian jarraitu ebin, baina urtekin talde bakoitza bere aldetik funtzionatzen hasi zan, aurrekontu eta diru eskaera separauak egiten".

Sociedad deportiva = mendi taldea?

Sociedad deportiva erakunde fantasma bihurtu da azken urteetan, presidenterik gabe azken 7 urteetan eta zihur herriar gutxiak dakiela zertan den. Soroluzetar gehienok (inkestaxo bat egin



Mendi taldeak 2004an egindako irteera.

dugu), Soroluzeko Kirol Bazkuna mendi taldearekin lotzen dugu: mendi irteerekin, eski asteburuekin eta medallista egunarekin. Hori aitzaki hartuta bildu ditugu oraingo eta lehengo argazki hauek, plazentziatarren mendirako afizioaren erakusgarri.

Arduradunak lagatzeko gogoz daude eta erreleboa behar da

Iñaki Ruiz elkarrizketatu dugu, gaur egungo Mendi taldeko arduraduna. Argi eta garbi esan digu eurak ardura lagatzeko gogoz daudela eta jende berria behar dela Mendi Taldean.



PRIMITIVO ETXEBERRIA Iturrien zaindaria

Asko izan dira Plazentzian mendizaleak; gutxi seguraski, Primitivo Etxeberria bezain amorratuak. Ez zituen hemen inguruetakoa mendi-tontor guztiak bakarrik zapaldu. Alpeetan ere ibili zen, mendi garaietara joateko ohitura eta baliabiderik ez zegoen urteetan. Sociedad Deportivako mendi taldeko laguntzaile ere izan zen. Berak hartu zuen S.D.P.k egindako iturriak zaindu eta kurioso mantentzeko ohitura eta lana. Alicanten hil zen, mendi istripuz, 1987. urtean.



JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KDL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Kontulan Aholkularitza S.L.

**Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82
20590 Soroluzeko
GIPUZKOA



Finalista Eguneako medalla banatzea Ezozin (1982)



**Soraluze'ko
Kirol Bazkuna**

*Bizkarrian pardela
eskuan makila
aldasaz gora doaz
gisa talde pilla
Kaleari utzi ta
haizearen bila
zaletasun eder hau zabaldu dedilla!*



Gaztetxoak Urkia Zelain Finalista Eguneako sariak eskutan (90. hamark.)

IÑAKI RUIZ

Mendi Taldeko arduraduna

Zein egoeratan dago Sociedad Deportiva?

Sociedad deportiva moduan ez dau funtzionatzen. Guk mendi talde moduan funtzionatzen dogu, eta beste taldiak bebai. Lotura bakarra egoitza hau da, pelota taldiak eta mendi taldiak erdi-bana ordaintzen doguna.

Eta mendi taldia?

Funtzionamentu aldetik nahiko ondo dabil, jente aldetik ez.

Zeintzuk dira mendi taldian urtian ziharko ekintzak?

Eskolarteko kiroletan sartu zan mendixa eta horren bittartez egiten dira mendi-irteerak. Maite Gorostidi dabil irteera horren arduradun. Eskualdeka funtzionatzen dau eta finalista eguna be antolatzen dabe. Gero guk, aparte, Plazentzian antolatzen dogu beste finalista egun bat, bertako neska-mutilekin. Azkenengo urtietan, gehixago edo gutxiago, beti saiatu gara mendixakin lotutako ekintzak egitten: mendi astia, mendiko diapositibak, pelikulak, eskiatzera txanguak...

Bazkiderik badaka Kirol Bazkuna?

Guk mendixan federatzen diranerri bazkide kuota kobratzen dotsegu. Da-

Kirol Bazkunaren egoitzan (Rabal 13) elkartu gara Iñakirekin, egungo Mendi Taldeko arduradunarekin. Bere belaunaldikoak oso gazterik sartu zi-

ren Mendi Taldean (1991. urtean), ardurak hartuz. Aurten bakarrik geratuko da eta ez du jarraitu nahi. Gaztegoen erreleboa eskatu du.



Iñaki Ruiz Mendi Taldearen egoitzan.

nera 97 mendizale dare izen emonda.

Gaur egun badago Plazentzian mendi-zaletasunik?

Bai, jentia asko mobitzen da mendixetara. Oin gizartia aldatu egin da eta indibidualistiago bihurtu gara. Lehen mendira jutia jentiaikin alkartzeko motibo be bazan. Gaur egunian bakoitza beran kontura dabil. Beste alde batetik,

lehen ez zeguan hainbeste auto, gaurko moduan, eta derrigor hartu bihar izaten zan autobusa.

Aurrera begira zer?

Azkenengo urtietan Zubiaurre Elizburu ta ni ibili gara baina oin bakoitza bere bizitza egitten hasi da. Errelebuan zain gare. Bestela persianak itxi biharko dira.



Diseinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Begoña Urdaitegia

Hestebete bereziak:

- Iberikoak
- Pateak

Hel.: Merkatu Plaza
Telf.: 943 75 3009

-DEBAJAZZ-

Jazza Debarreneko herrietan



Ubane eta Xarra Gaztelupeko arduradunak Debajjazzen kartelarekin.

Soraluzeko Errabal Kultur Elkartek antolatutako Debajazz, Debarreneko jazzaldiaren II. edizioak 6 kontzertu berri ekarriko ditu Deba ibarreko 6 herritara, urriaren 14tik azaroaren 4 ra bitartean. Mutriku, Elgoibar, Eibar, Deba, Soraluze eta Elgeta, hurrenkera honetan, izango dira datozen asteburuetan jazzaldi ibiltaria hartuko duten herriak. Soraluzera Carme Canela Trio kataluniarra (soilik emakumez osatutako formazioa, ez-ohikoa jazz taldeetan) etorriko da hil honen bukaeran. Jazzaldia Bill Evans famatuaren Soulgrass Bandak itxiko du, Elgetan. Saxojole Estatu Batuarra bere disko berria aurkeztera etorriko da Europara. Peninsulaeen Bartzelonan, Madrilen eta Elgetan joko du bakarrik.

Talde berrien lehiaketa

Aurtengo berrikuntza talde berrien

Lehiaketako irabazlea zein den Bill Evansen kontzertuan jakingo da, Elgetako Kafe Antzokian.

lehiaketa izan da. Gaztelupeko makeda bidali zuten taldeen artean 4 selekzionatu zituzten. Finalistak (El Eje Quintet Donostiarrak, Zafari Project madrildarrak, High Groovin Berklee-darrak eta Karion Bartzelonarrak) urriaren 8 eta 9an lehiatu ziren Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Irabazlea zein talde den Bill Evansen kontzertuan jakingo da.

Lauaxetaren omenezko kontzertua

Astearte honetan (hilak 18) 20:00etan Mikel Urdangarin, Gari, Eñaut Elorrieta, Rafa Rueda, Jabier Muguruza, Anje Duhalde, Txuma Murugarren, Petti, Xabier Montoia, Xabi Strubell eta Francis Diez Elgetako Espaloian izango dira "Ehungarrenean hamaika" Lauaxetaren omenezko emanaldia eskeintzen.

KONTZERTUAK

Urriak 15, MUTRIKU
Kultur Etxean 20:00etan
Miren Aranburu Ensemble

Urriak 21, ELGOIBAR
Herriko Antzokian 22:15etan
Santi Ibarretxe-Primita

Urriak 22, EIBAR
Musika Eskolan 22:00etan
The Heckler 4et

Urriak 28, DEBA
Casino. 22:30etan
Mikel Andueza Trio

Urriak 29, SORALUZE
Kapilla. 22:15
Carme Canela Trio

Azaroak 4, ELGETA
Kafe Antzokia. 22:30
Bill Evans Soulgrass Band

151 ikasle

Musika Eskolan

151 ikaslek hasi dute ikasturte berria musika eskolan. Iaz baino 3 ikasle gehiagok. Trikitixa (19 ikasle), gitarra (18), gitarra elektrikoa (18) eta biolina (17) dira aurtengo instrumenturik eskatuenak. Eskaera gutxien bandako instrumentuek (klarinetea, tronboia, helikoa...) izan dute. Guztira 266 matrikula egin dira baina ikasleak 156 dira. Musika Eskolako arduradunak oso gustora daude kopuruarekin.



Ramon Barrenetxea

Odol emailea

<< Herrixan 300 odol emaile inguru dare, Plazentzia baterako gutxi da hori >>

Datorren urriaren 23an Debabarreneko Odol Emaileak omentzeko ekitaldia egingo da Arraten. Bertan, diploma eta garaikurrak emango zaizkie 25 alditan edo gehiagotan odola eman duten pertsoneri. Hamairu Plazentziar omen-duko dituzte eta tartean Ramon Barrenetxea ere bai. Ramonek 55 alditan eman du odola, Soraluzeke Odol Emaileen Elkartearen sortzaileetako bat da eta 1975etik 2000. urte ingururarte izan zen arduraduna.

Noiztik zara odol emaile?

1965 inguruan Felix Abarrategi hasi zan Plazentzian odola emon ahal izateko lanian (ordurarte inguruko herrixetara joan behar izaten zan). Neri laguntzeko eskatu zoztan eta soziedadietan ibili ginan odola emongo leuken jente bila. Orduan Labegain eta beste soziedadetan etaratzten zan odola. 1969xan bulegua ipini zan Abadetxian eta odol etaratzia Juventud Gonzagan egitten ziran. Gero anbulatorixuan eta oin Ikastolan.

Zergaittik egin zinan?

Gure etxian beti izan gara liberalak eta osasunakin lotutako lanetan dabiz senide asko. Aittak odol asko emon zeban eta nik beragandik ikasi neban. Lehen premiñia zeguanian emoten zan odola, besotik besora.

Zela dago oin elkartia?

Oin arduraduna Itziar Oregi da eta idazkarixa Bixente Olai-zola. Lopez-ek ardaue emoten dau, kooperatibiak jana eta ogiza geuk ipintzen dogu. Oin deialdixak Correos-ek bialtzen dittu

“Gaztieri animatzeko esango notseke, bestieri laguntziaz gain, norberandako be osasungarrixa dalako odola etaratzia”

bazkidien etxera eta gero bakoitzak pentsatzen dau etara ala ez etara. Ondo moldatzen gara odola etaratzeko baina ez hain ondo lokalakin eta finantziaziñuakin.

Zenbat lagunek emoten dabe odola Plazentzian?

300 lagun inguruk. Plazentziarako gutxi da. Herrittar danen %10-%12 inguruan ibiltzia litzake normalena, 400-500 lagunek bittartian. Ez da nahikua, bertarako odola be juxtuan izaten da.

Zenbatian behin egitten dira etaraketak?

Bi hilabetetik behin egitten dira odol etaraketak 50-60 lagunekin. 400 zl etaratzten dittue eta gero hiru hilabete inguru bihar izaten da berriz errekuperatzeko.

Esperientzia txarren bat pasatu dozu?

Ez. Gehixenetan lehenengo aldiz emoten dabena izaten da geizki pasatzen dabena. Baina gero hiru lau aldiz emoten dabengan normaldu eta trunkildu egitten da. Nik gomendatzen dot hiru ordu aurretik zeozer jatia.

Amaitzeko zeozer esan nahi zenduke?

Agur bero bat Felix Abarrategiri eta eskerrak hainbeste lan egin zebalako alor honetan. Gaztieri animatzeko esango notseke, bestieri laguntziaz gain norberandako osasungarrixa dalako odola etaratzia, odola berrittu egitten dalako.

Etxabe Harategia

Euskal txahalkia-Bildotsa

Merkatu Plaza
6-7 Postuak
Telef. 943752375



TXURRUKA

JATETXEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



Antxintxinka krossa



Goienkaria

Joan zen eguaztenean jokatu zen Soraluze eta Bergara artean Antxintxi Krossa. Eguraldiak ez zuen batere lagundu baina hala ere 150 korrikalaritik gora parte hartu zuten 11 kilometroko lasterketan. Hainbat Plazentziarrek egin zuten korrika eta Zigor Esnaola 4. gelditu zen.

Gizonezkoetan

Ekaitz Osa 35:20
Roberto Zurro 36:57
Iker Larrea 37:00
Zigor Esnaola 37:30

Emakumezkoetan

Libe Totorika 52:55
Maitane Txueka 53:23
Maria Jose Gil 53:58

Laskurain berriro kantxetara

Haritz Laskurain igande hontan (urriak 16) hasiko da berriz ere partiduak jokatzeko. Lesiotik irten berri da eta horregatik "ilusioz baina zuhur" joango dela partidura adierazi digu Aritzek.

Bergarako norgehiagokan Baleztana eratsundarrarekin batera Larralde eta Zubietaren kontra arituko da. Partiduak 17:00etan hasiko dira eta Haritzena 3. A izango da.

EMAITZAK

ESKU PILOTAN

JAUREGI

Oñatiko txapelketako finalean
Huizi-Jauregi 19 Ibai Bengoetxea-
Erauskin 22
Egiako txapelketan
Errozenea-Jauregi 22 Gonzalez-
Garmendia 11
Gipuzkoako Klub artekoan
Zabala-Jauregi 22 Errasti anaiak 11
Diario Vasco torneoan
Olazabal Jauregi 22 Lemuno-Iza 7

ATXOTEGI

Gipuzkoako herri artekoan
Atxotegi-Portu 22
Agirrezabalaga-Sarasola 0 (Añorga)
Atxotegi-Portu 20
Aizpitarte-Grajal 22 (Hernani)

FUTBOLA

Sora 0 - Antzuola 0 (erreg)
Arrasate 2 - Sora 1 (jub)
Sora 1- Aretxabaleta 14 (sic)

AJENDA

PELOTA

Diario Vasco torneoan
Urriaren 21ean, Seguran
-Atxotegi-Linzoain
Mikel Jauregi -Nuñez
-Olazabal-Jauregi
Oñatz Gonzalez-Lopez

MENDIA

Urriaren 23an
Finalista Eguna
Billabonan



HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE



etxebarri
etxehun

Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXE HUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@teleline.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

Igor Arriaga Sorako entrenatzailea

Igor Arriaga eta Jabier Isturiz eibartarrak dira Soraluze Futbol talde nagusiko entrenatzaile berriak. Gazteena, Igor (23 urte), jokalaria ere bada Aretxabaleta futbol taldean. Futbola nola bizi duen jakiteko jo dugu beragana. Entrenamentua hasi aurretik harra-patu dugu.

Jaioterrixa?

Eibar.

Ikasketak?

Magisteritza; lanbide heziketa fisikua dihardut ikasten.

Entrenatzaile eta futbolari zara...

Entrenatzaile Soran, Jabierrekin batera eta jokalaria Aretxabaletan.

Zein postutan jokatzen dozu?

Aurrelarixa naiz.

Eta golik?

Aurten bai; 6 partidutan 7!

Ze ekipo jarraitzen dozu?

Erreala eta Eibar.

Gustoko futbolari eta entrenatzaile bat?

Jose Mari Bakero eta Johan Cruyff.

"Emaizta on-onik ez dogu lortu baina hobera egingo dogu"

Zein da defensarik onena?

Atakia.

Eta atakerik onena?

Area barruan amaitzen dana.

Zeintzuk dira jokalaria on baten ezau-garrixak?

Fisiko ona, buru hotza eta futbol zelaixan bihar izaten dan instinto hori.

Zela hasi dogu denboraldixa?

Emaizta on-onik ez dogu lortu (garaipen bat, porrot bat eta berdinketa bat) baina hobera egingo dogu.

Lehenengo mailara igotzeko taldia

Bertso Begiz

*Entrenatzaile gisa
famatzeko nahian,
jai hemen ta jai han...
Eibarretik Sorara
pasa haiz usaian.
Taldea utzi hezak
lehenbiziko mailan.
Golik sartu ezinda
dabiltzan garaian,
jantzi elastikoa
ta sartu zelaian.*

Neko

Doinua: Asteburu aldera



Igor Arriaga

dauka Sorak?

Bai, dudarik barik.

Zela motibatzen ditzuzue jokalarixak?

Entrenamentu polittak egitten, baloia asko erabili etabar...eurak gustora egoteko.

Arbitruari protesta asko egitten dotsazu?

Jokalaria moduan oso berua naiz. Oin bankilluan ikasi egin biharko dot ixiltzen eta jokalarixeri ixil-

tzeko eskatzen.

Jokalarixak galerazita daukez juer-gak?

Ez. Nik uste dot urten egin bihar dala gainera. Baina lasai, ordubatian edo ordubixetan ohera.

Futbol zelaixa ze egoeratan dago?

Futbolian ikasteko eta jokatzeke ez da aproposena, baiña kontrari-xuandako okerrago da beti.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Argazki zaharra



Iturria: Maribel Sebal

1963ko Finalista eguna Ezozin

Orduko Sociedad Deportivak Ezozin egindako Finalista egunian sarritutako gizonetzko, emakumezko eta ume mendizaliak. Paparrian medaila bana ageri dau bakoitzak. Urte hartan, 1963an, Felix Abarrategi zen Sociedad Deportivako presidentea.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

Deitu

943 75 13 04 ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

**Aurreko
alean...**

Ez zen lehiaketarik izan.

Telefonia 75 24 09

ARRANO tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonia 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonia 943 75 13 99
SORALUZE

Ion Murgizu Pinturak

- Margoketa orokorrean -

Empapelatuak,

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Telefonia 943751324
Mugikorra 652777030
Ezoziko etorbidea 24 2 behea
20590 Soraluze



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazoen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Deba Barrena
urriak 18 octubre
ELGOIBAR
Makina Erremintaren
Institutua (IMH)



Zer egin zabor-postatik libratzeko

Zabor-postak gure postontziak gainezkatzen ditu. **Birusek, spywareek, adwareek eta phishingek** gure sistema informatikoak arriskuan jartzen dituzte. Nola ekidin daitezkeen erakutsiko dizugu kasu praktikoen bidez, eta gainera **doakoak eta kostu baxukoak diren soluzioak azalduko dizkizugu.**

Horario / Orduetgia:
18:00-20:00

Información e inscripciones:
Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

 **euskadi**
Itimuztu gaitzen eta lekuak erabiltzen

e-gipuzkoa SPRI

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekuerazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Orduetgia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022

